



## Alkasoroko Benta

Mikel Taberna

Liburu jatorra da, atseginez irakurtzen da, bai begi aurrean jartzen digun euskaragatik bai liburuagatik beragatik. Darabilen euskara *itxuraz* ez da konplikatuegia, baina zehaztasun askotxo ditu, eta bakuntasun horren atzean badago halako sofistikazio bat... eta ohartzen zara hizkuntza oso benetakoa dela. Liburuaren kontakizuna garatzen den inguruari berez dagokion euskalkiak ere badu bere presentzia eta, esan bezala, hamaika bat zehaztasun du, eta naturala da, oso.

Bidasoa alde mitikoa hartzen du abiapuntu, Pirinioetako Nafarroa euskalduna, Baztan aldea, “Frantziarekin” muga egiten duen lur-puska alegia, kontrabandista-istorio ugariaren iturri ere badena –gure geografiako lurralde horrek daukan misteriozko aireaz ahaztu gabe!–. Horra hor, beraz, istorioaren kokalekua. Bertakoentzat ez ezik, esango nuke euskaldun gehienontzat ere izen mitologikoz aski ongi horniturik dagoen lurralde bat dela: Bera, Lesaka, Igantzi, Etxalar, Sara, Zugarramurdi, Dantxarinea, Elizondo, Oronoz, Mugairi, Amaiur... Zenbat izen eta zeinen politikak, belarrirako musika hutsa direnak!

Mozkorturik zegoen guardia zibil batek liburuko protagonista eta honen lagun bat hiltzen dituenean, liburuan kontatzen zaigun istorioak puntu oso tragikoa erdiesten du (hasieran ere bazegoen beste hilketa bat, lazgarria berau, beste zibil batek egina, baina hain azkar eta bat-batean jazioa, ezen, irakurleak ia ez baitu astirik erreakzionatzeko...). Baina protagonistaren/narratzailearen hilketa bertako dantza-leku ospetsu batean jazotzen da, eta nik uste dut benetako gertaeretan oinarriturik dagoela...

Hori dela-eta, Iñaki Kijeraren heriotza etorri zait gogora, bere lagun-taldeko kideen bizitzan horrek izan zuen eragina eta izan zituen ondorioak gogorarazi dizkidalarik. Neure buruari galde egin diot ea zenbat alditan errepikatu zen istorio bera trantsizioaren aurreko garaian eta ondorengoan (edota hain arestikoa ez den garai batean, esaterako, Cabacas-en heriotza, urrunago jo gabe). Eta berehala ohartzen zara egoera bertsuak errepikatzen direla: hilketa absurduak bezain bidegabeak, hildakoak oso gazteak izatea, hildakoari azken agurra, amaren ezin esaneko samina bere seme zenduaren lagun-taldea ikusterakoan, manifestazioak, polizien kargak...

Zenbat gazte esnatu ziren egun batean adiskide kutun baten galerak eragindako amesgaiztoaren eta tragediaren erdian, polizia deskontrolatu baten erruz? Ez dakit guztira zenbat izango ziren antzeko egoeran hildako gazteak, baina asko, dudarik gabe, euskal geografia osoan zehar sakabanatuta...

Narratzailearen kontatzeko teknika ez dela oso korapilatsua uste dut, hau da, liburuko protagonistak berak narratzen ditu gertaerak lehen pertsona erabiliz, baita beraren heriotzari dagozkion gertaerak ere: hileta-elizkizunak, manifestazioak, e.a. Alde horretatik, ordura arte liburuak planteatzen zuen errealismoa hautsita gelditzen da bat-batean, eta aurrerantzean narrazioak izaera magikoa edo naturaz gaindikoa hartzen du.

Hori jo al daiteke gehiegizkotzat? Nik uste dut baietz, baina bueno, akaso eleberriak egiten duen planteamendu erraz horren ondorioa da...

Nolanahi ere, liburu txukuna da, eta Nafarroako eremu geografiko horretan bizi diren euskaldunen errealitatera hurbiltzeko ere balio du. Izan ere, kontakizunean bi gertaeremota daude: hutsalak (oso politak) eta tragikoak (azken 40 urteotan euskal herriaren nortasuna markatu duten gertaerez –beste behin– jabetzeko balio digutenak).

Azkenik, badago azken gauza bat, esan nahi nukeena: begirada erabat politizatuez haratago, hiri handietatik deslokaturik eta euren erritmoan eta era propioan bilakaturik, Bidasoaldeko herri euskaldunen bizitza eta bihotza helarazten jakin du liburuaren egileak, Mikel Tabernak, irakurlearen begi aurrean paisaia koloretsu eta jator bat jarriz, pintzelkada finez eta azkarrez jositako liburu honetan.